

# BALEIKE



ESKALADA

## PARETAREN DEIA



# Aupa Telmo Deun!



- Ōkin, patrocinador oficial de las traineras masculina y femenina de Telmo Deun -





ENDAÑETak  
ez du saldu  
bakarik egiten,  
arreta ere  
ematen du

[www.endañetazumaia.com](http://www.endañetazumaia.com)

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

**Tien21**

# Idoia

ARDOTEGIA



Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



# BALEIKE 311

2021-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA



## Aurkibidea

- |    |                                                                                      |    |                                                                                    |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------|----|------------------------------------------------------------------------------------|
| 4  | <b>Hitz tantak</b> Jabi Gonzalez Toston<br><i>Paula Egaña</i>                        | 25 | <b>Heziketa</b> Mireia Centeno<br><i>Gatazkarik gabeko oporrak</i>                 |
| 6  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Arnaitz Rubio<br>Aprea<br><i>Mugak</i>                     | 26 | <b>Plazan bazan</b>                                                                |
| 8  | <b>Hainbat aburu</b> Samuel Ruiz<br><i>Sahararren aldeko martxa</i>                  | 31 | <b>Zientzia eta ingurumena</b><br>Gonzalo Torre<br><i>Mamua haragitu da (!)</i>    |
| 9  | <b>Errematea</b> Jose Castillo<br><i>Antsietatearen pandemia</i>                     | 39 | <b>Orduan bai</b> Imanol Azkue Ibarbia<br><i>Herriko festak ziran biharamonian</i> |
| 11 | <b>Erreportajea</b> Maria Maya<br>Manterola<br><i>Eskalada, kirola eta bizimodua</i> | 43 | <b>Agenda</b>                                                                      |
| 16 | <b>Elkarrikketa</b> Dorleta Agiriano Lai<br><i>Partekatzen den zerbait da musika</i> | 44 | <b>Literatura</b> Antton Peñalba<br><i>Errua eta erruduntasuna</i>                 |
| 20 | <b>Erretratua</b> Juan Luis Romatet<br><i>Iban Barba Urdangarin, udaltzaina</i>      | 45 | <b>Nire txanda</b> Ihintz Linazisoro<br><i>Nahikoa da!</i>                         |
|    |                                                                                      | 46 | <b>Azkena</b> Juan Luis Romatet<br><i>Metxeroa</i>                                 |

## BALEIKE



**Argitaratzailea**  
Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

**Zuzendaria**  
Maria Maya Manterola  
mmaya@ukt.eus  
**Erredaktore taldea**  
Juan Luis Romatet  
Onintza Lete Arrieta  
Imanol Azkue  
Dorleta Agiriano Lai

**Argazkilaria**  
Arnaitz Rubio Aprea  
**Diselnu arduraduna**  
Ane Azkue  
Maria Lopez  
**Hizkuntza arduraduna**  
Imanol Azkue Ibarbia

**Publizitate arduraduna**  
Felix Aizpuru  
publizitatea@baleike.eus  
**Administrazio arduraduna**  
Uxua Ostolaza  
administrazioa@baleike.eus

**Inprimategia**  
Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-405/94  
**ISSN:** 1136-8594  
**Tirada:** 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako  
Udala



# Paula Egaña

---

**TESTUA:** JABI GONZALEZ TOSTON

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

---

Itzurun eta Santiago txandakatuz igaro ditu azken hiru udak Paula Egaña (Zumaia, 2000).

Aurtengoa, laugarrena izango du hondartzako sorosle lanetan. Lehen laneguna amaitu berri elkartu da Baleikerekin.

**Heldu da uda, nolakoa izan da lehen lan eguna?**

Lanpetua oso. Lehen egunak lasaiak izan ohi dira, baina oraingo honetan, 5 erreskate egin ditugu, estreinatzeko. Eguraldi bikaina izan dugu eta jende asko etorri da. Abuztuko egun batean adina lan egin dugu.

**Eta nolako uda espero duzue?**

Lehen eguna nolakoa izan den ikusita, nahiago dut gehiegi ez pentsatu. Kanpotar asko etorriko direla iruditzen zait. Mugak zabaldu zirenetik, mugimendua sumatu da eta orain, udan, gehiago igarriko da.

**Dena den, iaz bezalaxe, edukierak mugatu dira. Esku hartze gutxiago egotea ekartzen du horrek?**

Ez. Egun guztiak ez dira berdinak, eta urteak ere ez. Batzuetan besteetan baino harrotuago egoten da itsasoa eta lan gehiago izaten dugu. Iaz ere edukierak mugatuta egon ziren, baina jende asko ibili zen hondartzan eta erreskate dezente egin genituen. Gainera, asko etorri zitzaizkigun kexaka, jendeak urertzean maskararik ez zeramalako. Horrelakorik ez genuela onartu behar esaten ziguten eta esku hartu beharra genuela. Gure eginkizuna, orde, ez da jendearen atzetik ibiltzea hori kontrolatzeko.

**Zein dira zuen ohiko esku hartzeak?**

Jendeak ez dezala pentsa filmetakoak bezalako erreskateak egiten ditugunik. Korronteak norbait eramanez eta uretatik ateratzeko zailtasunak dituenean, aski izaten da eskutik heltzearekin. Uretatik kanpo, zauriak sendatzea eta baten bat zorabiatutakoan edo kolpe handi bat hartutakoan

zaintzea izaten dira gure ohiko lanak. Uretan, noski, inor ez itotzea da gure helburu nagusia. Itzurunen korrontearekin izaten ditugu arazo gehien eta txilibitua jo eta jo aritzen gara. Bainu segurua bermatzeko egiten dugu, ez jendea molestatzeko.

**Esku hartzeak Itzurunen edo Santiagon ez dira berdinak izango, ezta?**

Egia da Itzurunen, itsasoa arriskitsuagoa dela, baina Santiagon jende gehiago egoten da, eta aldi berean arazo bat baino gehiago egonez gero, asko zailtzen zaigu lana. Ekainean eta irailean 2 sorosle baino ez dira egoten Santiagon, eta uztailean eta abuztuan 3; Itzurunen, berriz, 5 egoten dira.

**Emakume sorosle gutxiago ikusten dira gizonak baino, sentsazio deserosoa eragiten dizu?**

Emakume gutxi gara, bai, iaz bi hasi ginen eta nik bakarrik amaitu nuen azkenean, besteak utzi egin behar izan zuelako. Aurten, hasiera honetan, behintzat, 3 gara, inoiz baino gehiago sorosle naizenetik. Dena den, gizonez inguratuta egoteak sekula ez nau deseroso sentiarazi. Gazteak gara guztiak eta oso harreman ona dugu.

**Zerk animatu zintuen sorosle egitera?**

18 urterekin, lan egiteko gogoia nuen, eta nituen aukeren artean sorosle izateak erakartzen ninduen gehien. Hondartzan denbora pasatzea eta itsasoa betidanik gustatu izan zaizkit.

**Hondartza "lantoki" bihurtu denetik, jaiegunetan saihesten ahalegintzen zara?**

Ez zait axola, egia esan. Lagunak hondartzara badoaz, ni haiekin joango naiz, kasu horretan ez noa-eta lanera.

**Udan sorosle izateaz gain, zer gehiago egiten du Paula Egaña?**

Ingeniaritza biomedikoa ikasten dut Donostian. Datorren urtean amaituko dut, ikasturte erdia Suedian eginda. Erasmusekin noa irailean. ■■■





# Mugak

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

Sustraiak ez dituzte gizakiek marraztutako mugak errespetatzen. Telmo Esnalen kasua da. Zarauztarra jaiotzez, sustraiak Zumaiaraino heltzen zaizkio. Bere ibilbideaz ere gauza bera esan daiteke, bidean aurkitu dituen mugak beldurrik gabe zeharkatu dituela. Komedia kostunbristatik dantza hizpide duen ikus-entzunezko txundigarria; barrea izozten duen terrorezko filmetik existentziaren inguruan

hausnartzera gonbidatzen duen collagera. Mugak igarotzeko daudelako. ■■■■

## **Datu teknikoak**

*Kamera: Nikon D750*

*Objektiboa: Nikon 70-200 mm f2.8*

*Foku distantzia: 80 mm*

*Diafragma: f3.5*

*Obturazio abiadura: 1/500 seg.*

*ISO: 500*

*Kanpoko flash-a erabilia*

Instagram: **@arnaitzrubiophoto**







SAMUEL RUIZ

# Sahararren aldeko martxa

**M**endebaldeko Sahara herriarentzat 1970eko hamarkada oso gogorra eta iluna izan zen. Hilabetean, Espainiako 53. probintzia izatetik, Marokok 1975eko urrian, bere martxa berdea erabiliz, saharar lurraldea ilegalki okupatu arte.

Garai hartako Espainiako gobernuak, interes ekonomikoa eta akordio politiko ilunak kontuan edukiz, Maroko eta Mauritaniari saldu zion Mendebaldeko Sahara 1975eko azaroan Madril en egindako hiruren arteko hitzarmenean.

Harrezkeroztik, sahararrek milaka istorio pasa behar izan dituzte. Gerra, zapalkuntza, errepresioa, erbesteratu beharra. Aljeriako hamadan, desertuaren erdian, ezerezaren erdian, gaur errefuxiatuen kanpalekua dagoen lekuan,

hutsetik nazio bat sortu behar izan zuten. Urteak pasa, eta egoera ez da aldatu. Dagoeneko, 45 urte pasa dira eta sahararren egoerak berdin jarraitzen du. Saharar batzuk Marokoren menpe lurralde okupatueta eta egunero poliziaren errepresioa jasaten; beste batzuk Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuetan biziraute; eta, beste asko, Europan zehar sakabanaturik, baina inoiz ahaztu gabe nondik datozen eta zein den beraien aberria.


**DAGOENOKO, 45 URTE  
PASA DIRA ETA  
SAHARAREN  
EGOERAK BERDIN  
JARRAITZEN DU**

Eta, bitartean, zer dio Europak gatazka honen aurrean?

Nazio Batuen Erakundeak dio Espainia Mendebaldeko Saharako potentzia administratzailea dela eta duela 45 urtetik etendako deskolonizazio prozesuari amaiera eman behar diola. Gainera, 1991n Marokok eta Mendebaldeko Saharak su etenean onartutakoa eta sinatutakoa bete behar dela dio Nazio Batuen Erakundeak; hau da, Sahararen autodeterminazio erreferenduma egin behar dela berme guztiekin.

Bestetik, Nazioarteko Zuzenbidea argia da sahararren auziari dagokionez: Marokok ez du inolako subiranotasunik lurraldearen gainean eta autodeterminazio erreferenduma egin behar dela.

HAUXE BAI JENEROA!



Horregatik, egungo gerra egoera, Marokoren errepresio eta okupazio bortitza, Espainiako gobernuaren isiltasuna eta Nazio Batuen Erakundearen konplizitatea ikusita, aurtengo maiatzean eta ekainean saharar herriaren kausarekin bat gatozen elkarte, sindikatu, kolektibo, erakunde eta gizarte zibilak martxa birtualari hasiera eman genion, saharar herriak bizi duen egoera larria salatzeko. Saharar herriaren askatasunaren aldeko martxa, hain zuzen ere.

Martxa hau Irunen hasi eta Euskal Herriko hiriburuak eta zenbait herri zeharkatu ondoren, Estatuko beste martxekin batera elkartu zen Madrilen ekainaren 19an, eta bertan manifestazio orokorra egin genuen. Zumaia, Darahli elkarteak antolatuta,

Madrilera autobus bat abiatuko zen Saharar herriari babesa eman nahian eta bertan aho biziz eta ozenki SAHARA LIBRE mezua aldarrikatu genuen.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuari koherentzia eta irmotasuna eskatzen diogu hainbeste aipatzen duen nazioarteko legezketasunaren bere ustezko defentsan.

Saharar herriaren askatasunerako eskubide legitimoa babestea eta errespetatzea, eta Fronte Polisarioaren estatus diplomatikoa formalki aitortzea, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren ordezkari bakar eta legitimo gisa.

Gora Sahara libre!  
Erreferenduma orain! ■■■

## ERREMATEA



JOSE CASTILLO

## Antsietatearen pandemia

**B**uru osasunaren gaia gaurkotasan handikoa bihurtu da. Datuek proposamen hau baieztatzen dute: Espainiako Estatuko populazioaren % 15 inguruk antsietatea edota depresioa pairatzen du. Bereziki, gazte langileak dira antsietate eta depresio gehien pairatzen dituztenak.

Eskuinak betiko erantzuna ematen digu: "Porrot egiten baduzu, gehiegi saiatu ez zarelako da". Bestalde, ezker sozialdemokratak, aberastasuna berriz banatzeari uko egin dionez, ezintasun ikaragarria baitu bere programa politikoaren proposamenak errealitatez eramateko, antsietatearen arazo sozialari erantzun azkarra eman nahi dio: "Psikologoak merkatuko ditugu". Baina benetako arazoa psikologora joateko beharra bera da.

Populazioaren zati handi bat ez dago triste (soilik) laguntza psikologikoa falta duelako. Baliteke triste egotea miseriazko soldata bat dutelako eta alokairu bat ezin dutelako ordaindu. Euren bikotea, familia edota lagunak ezin dituztelako ikusi. Krisi kapitalistak aurrera darraien bitartean, jendarteak gaixotzen jarraituko du. Psikologoak beharrezkoak dira, eta gaixotzen gaituen sistema gainditzeko antolakuntza ere bai. ■■■





## PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943-86 21 52



**Aita Mari**  
JATETXEA

679 10 31 67  
Juan de Zigarán, 1  
Zumaia  
@aitamarijatekx@gmail.com



**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte  
Tel. 650 26 59 63  
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00



**ALBERDI**  
dekorazioa


- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amama**  
Taberna

tel. 943-57 46 51  
amamataverna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behea • Zumaia  
943-54 35 70 • 688 73 38 56



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943-86 16 31



**ARDANTZABIDE**  
TABERNA

Ardantzabide, 12  
943-57 22 47



**OKINDEGIA**  
Arkupe

Nausia, 2 • tel. 943-86 15 21  
ZUMAIA

OGI-EDER



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



**Bosch Service**

Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5  
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



**AXA**


943-53 03 97  
688 71 26 21  
Kantauri 2, behea  
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



**bai bidea**

Taberna • Jatetxea  
Bar • Restaurante

943-86 02 75  
697 81 24 92  
batzokizumaia@gmail.com  
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6  
Zumaia (Gipuzkoa)



**BAKUN**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06  
bakun@euskainet.net



**Basadi**  
albaitaritza

Albaitaria  
Inaki Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10  
veterinaria@basadidivinet.com  
www.basadidivinet.com

Goloz: 11-13 / Armatulok: 16-19:30 / Askelehen golozen eta tartaralari bita  
Larrialditarako: 605 72 87 07 Eltxez etxeko zerbitzua



# Eskalada, kirola eta bizimodua

Azken urteotan gora egin du eskaladarako afizioak, eta gaur-gaurkoz, 50 lagunetik gora aritzen da Juan Belmonte kaleko rokodromoan. Hala eta guztiz, lokalean kirolaz gozatu arren, “harrian ibiltzeko indarra hartzea” da helburua Abel Armendariz, Iker Lizarazu eta Oier Basurkorentzat.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.





Rodellar (Huesca).

## **HARRIAN INDARTSUAGO IBILTZEKO PRAKTIKATZEN DUTE LOKALEAN**

## **HEGOAFRIKAN DAGO ESKALATZEKO BEGIZ JOTA DUTEN LEKU BAT, LURMUTUR HIRITIK IPARRALDERA EGINDA**

**N**orbera bere bidetik iritsi zen eskalatzeraz, baina orain, “eskalatzaileek osatzen duten familia horren

parte” dira Iker Lizarazu, Oier Basurko eta Abel Armendariz zumaiaarrak. Juan Belmonte kaleko rokodromoan ezagutu zuten elkar: Oierren aita Joseba Basurko eskalatzailea izan da betidanik, txikitik harekin ibiltzen zen, baina zazpi urterekin utzi zion eskalatzeari. Duela lau urte lokalera joan eta bertan ezagutu zituen Armendariz eta Lizarazu. Hamalau urterekin egin zuen lehenengoz haiekin eskalada praktikatzeko bidaia bat.

Lizarazu, berriz, Xabi Uribeondo osabarekin ibiltzen zen haurra zenean, eta gero, urte batzuetara, bi lagun hasi zirelako itzuli zen paretetara. “Aitak eskalatzeiko oinetakoak

erregalatu zizkidan. Sei urte edo izango dira”, dio. Orduan ezagutu zuen Armendariz. “Egun batean Ioritz Ibaiek eraman ninduen lokalera, eta uste dut ordutik ez naizela geratu. Asteazken bost egun egiten ditut eskalatzen”, dio Armendarizek. Haren hitzetan, kirol bat baino gehiago, “bizimodua” da eskalada: “Zazpi urte egin nituen eskubaloian, eta nekatuta nengoen partidetak presioarekin: beti irabazi egin behar, astebururo partidak parranda egin nahi nuenean... Eskalada, ordea, bateragarria da parranda egitearekin”, dio irribarretsu. Gainera, Armendarizek aipatu du ez dela inoren aurka lehiatzen, “zeure buruarekin” baizik. “Bakoitzak bere maila du, eta bere erronkak planteatzen ditu. Giro ona sortzen da, gainera: jarduera honetan gaudenak elkar laguntzen saiatzen gara”, dio.

Lizarazuk parte hartu izan du Euskal Herriko txapelketan, baina lehia alde batera utzi eta lagunartean harrian aritzea gustatzen zaio. Izan ere, harrian indartsuago ibiltzeko praktikatzen dute lokalean. Zumaian badituzte kanpoaldean eskalatzeiko leku aproposak: Mariantonaitz (“Joxemite”) da ezagunena, baina Kamineros aldera ere jotzen dute, baita Arroa ingurura ere. Arroan sokarik gabe ibiltzen dira, azpian koltxonetak jarrita. Neguan aritzen dira, batik bat, modalitate horretan: “Blokea egitea komeni da hotz egiten duenean. Aproposagoa da, bi mugimendu egin, eta jaitsi egiten zarelako”. Lizarazu ere bat dator Armendarizek azal dutakoarekin. Haren hitzetan, “intentsitate handiagokoa” da blokean, nahiz eta motzagoa izan. Kontrara, beroa txarra izaten da blokerako,



eskalatzaileek diotenez.

“Eskutatik gehiago izerditzen duzu, eta errazagoa da irrist egitea. Gainera, euskarriak txikiagoak dira”, azaldu dute.

Baina Zumaiatik kanpo ere bidaiatzen dute eskalatzeraz. Duten denboraren arabera erabakitzen dute asteburutan nora jo. Huesca aldera, Albarracinera... “Leku guztietan” lagunak egin dituzte, Armendarizen esanetan. “Goazenean abisatu egiten diegu, eta elkartu egiten gara”, azaldu du. “Lagun taldea elkartzen garenean, kanpin dendak, autokarabanak edota furgonetak zirkulu baten forman jartzen ditugu. Parriladak ere egiten ditugu”, gaineratu du Basurkok.

Ia astebururo bidaiatzen dute hirurek, eta egonaldi horietan gertatutakoez aritu dira.

Larraonan (Nafarroa)

zeudenekoa ekarri du Basurkok hizketaldira: “Beste leku batera

joatea adostu genuen hurrengo egunean, eta beste lagun batekin geratu ginen han. Gu Larraonan geunden, Bizkaiko lagun batzuekin, eta luzatu egin zitzaigun. Furgonetan amaitu genuen garagardoekin eta musika jarrita, eta ez ginen ohartu lotarakoan kontaktua jarrita utzi genuela. Hurrengo goizean esnatu, eta furgoneta bateriarik gabe zegoela ohartu ginen. Furgonetari bultzaka ibili ginen, beste batekin sokaz lotuta ezin arrankatu... Ez genuen errepidera atera nahi, trakzioa hartzeko. Azkenean garabia etorri zen, baina eguerdia zen. Ez ginen iritsi lagunarengana”, kontatu du. Armendarizi, berriz, Rozasera (Burgos) iristeko gorabeherak otu zaizkio: “Zumaiako beste eskalatzaile batzuekin Rozasen geratu ginen, Burgosen. Ni, Iker [Lizarazu] eta Ibon Gorriti atera ginen autokarabanan. Ordu eta erdiko bidaia genuen aurretik, GPSan bilatu genuen Rozas, baina beste bat, Kantabriakoa. Denetik pasa zen, eta ordu eta erdiko bidaia hori hurrengo egunean bukatu genuen. Ia 24 ordu behar izan genituen iristeko. Bidean lo egin genuen, autokarabanaren depositu bat hustu, portuak igo...”.

Hegoafrikan dago eskalatzeko begiz jota duten leku bat, Lurmutur Hiritik iparraldera eginda. “Hego hemisferioan dagoenez,



Canfranc (Huesca).

Albarracin (Teruel).





Canfranc (Huesca).

eskalatzen hasi aurretik, aseguratzaileak begiratzen dio eskalatzaileari ea korapiloa eta arnesa behar bezala dituen. Eskalatzera doanak, berriz, aseguratzaileari begiratzen dio ea

hemen uda denean han negua da. Beraz, boulderra egin dezakezu udan. Munduko lekurik onena da horretarako”, azaldu du Armendarizek.

### **Materialean eta kidearengan konfiantza**

Eskalada “kirol segurua” da, baina kirol guztietan bezala, lesioak eta istripu txikiak izan dituzte hirurek. Armendariz Lizarazu aseguratzan ari zela gertatu zen bat, iaz.

“Ainguratze puntua normalean behean uzten da. Gertatzen den istripu ohikoa da soka atzetik sartu eta itzulipurdia egitea”, azaldu du Armendarizek. Lizarazuk harriaren kontra jo zuen itzulipurdian, eta errebotean aurrekoa aldearekin ere bai. “Kaskoa jantzita neukan, eta gaitzerdi”, dio Lizarazuk.

Basurkok, berriz, orkatilan hartu zuen min, estreinakoz pareta luzean gora zihoala. Bospasei metro egin zituenean erori zen, heldulekua hautsi zitzaionean. Erlaitzaren aurka jo zuen orduan. Armendarizek dio, ordea, “eskalatzaile guztiei” pasatzen zaizkiela halakoak: “Euskarri txikiak heltzen ditugu. gehienak hatzetako artikulazioetako lesioak izaten dira”.

“Gauzak behar bezala eginez gero”, ordea, eskalada kirol segurua dela uste dute, “kotxean ibiltzea baino are seguruagoa”. Horretarako, funtsezkoa da materialean eta ondoko kideengan konfiantza izatea. “Zorrotzak eta metodikoak” dira horretan Armendariz, Lizarazu eta Basurko. Hasteko eta behin,




soka ondo pasata daukan. Azken pausoa izaten da beraientzat, protokoloa behar bezala osatzeko, elkarri eskua ematea. Orduan hasi daitezke eskalatzen. Boulderra egiten badute, aldiz, koltxonetak ondo jartzen saiatzen dira.

Eskalatzaile ona izateko, ordea, ezinbestekoak diren bertuteak ere hizketagai izan dituzte. Basurkoren ustez, sufritzen jakin behar da, albokoengandik ikasteaz eta albokoei irakasteaz gain. “Momentu batzuetan frustrazioa izan dezakezu, baina frustrazio hori eramaten ikastea gakoa da. Horrek ematen ditu fruituak”, dio. Lizarazuk ere, bide beretik, konstantzia aipatu du. Armendarizen ustez, berriz, ezaugarri psikologikoak, hatzetako indarra, malgutasuna, oreka eta beldurrik ez izatea funtsezkoak dira eskalatzaile ona izateko. Hala ere, galdera bota du airera: “Zer da eskalatzaile ona izatea? Indartsua izatea, edo kirolaz gozatzea?”. ■



Rodellar (Huesca).

## NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna [aldizkaria@baleike.eus](mailto:aldizkaria@baleike.eus) e-posta helbidera bidali uztailaren 23a baino lehen. **Saria:** TIPITAKIn bi lagunentzat gosaria. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



**Esti Mora Baleikeko bazkidea da Baleike pertsonaia aurkitu duena.**

tipitaki



# "Partekatzen den zerbait da musika"

**MAIALEN VELARDE** MARLIK TALDEKO ABESLARIA

Lisboan bizi da Maialen Velarde (Zumaia, 1989), baina behin-behinean baldin bada ere, etxera itzuliko da udan. Etxera, eta oholtza gainera. Marlik taldeko abeslaria eta arkitektoa da Velarde, baina bere garaian, baita bertsolaria eta punta-puntako piraguita ere. Gazte izanagatik ere, hamaika pasiori bide egin eta hamaika erronkari heldu die urtez urte, eta dio guztiek eman diotela zerbait gaur egungo Maialen Velarde gorpuzteko.

Testua: **Dorleta Agiriano Lai**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

**azko urte amaieran Marlikek bigarren diskoa aurkeztu zuenetik, ezin izan duzue kontzerturik eman. Uda honetan, ordea, bi kontzertu eskainiko dituzue aspaldiko partez.**

Konfinamendu orokorraren ostean atera genuen gure bigarren lana, *Azaletik ezabatu baino lehen*. Sormena ez denez geratzen, disko hori argitaratzea modu bat izan zen hilabete horietan sortu genituen abestiak fisikoki nonbaiten uzteko. Durangoko Azokako Ahotsenean aurkeztu genuen diskoa urte amaieran, baina gero hor geratu zen; punta batean bizi gara taldekideetako bakoitza, eta, beraz, ez da hain erraza elkartzea eta kontzertuak ematea.

Orain zortea izan dugu, eta bi kontzertu emango ditugu udan. Neil Youngen omenezko Rust Fest jaialdian izango gara Azepeitian, eta Neil Youngen abestien bertsioak nahiz gure zenbait kantu nahastuko ditugu gure emanaldian. Berezia izango da, gure aurreneko abestiak artista horren bertsioak izan zirelako; santelmoetako Bertsio Gauean jo genituen, eta hortik sortu zen Marlik. **Zumaian ere izango zarete.**

Bai, baina kasu horretan, gure emanaldi bat izango da espresuki. Disko berriko kantuak eta zenbait abesti zahar joko ditugu, baina data

gerturatu ahala sentitzen dugun segurtasunaren araberakoa izango da errepertorioa, egia esan.

Oraingoz taldekideak ari dira entseatzeko elkartzen; beraz, kontzertuetan musika zoragarri entzungo da, ziur. Beste kontu bat izango da ea abeslariak nola erantzuten dien musikariei.

**Oholtza gainean jotzearen hutsunea sentitzen al duzue?**

Bai, nik asko sentitzen dut kontzertuen falta, eta pentsatzen dut taldekideek ere baietz. Hala ere, taldekideekin elkartzearen eta entseatzearen hutsunea ere sumatzen dut. Gauza bat da musika egitea eta horrekin gozatzea, baina, horretaz gain, garrantzitsua da jendearekin egotea eta *feedbacka* izatea. Musika partekatzen den zerbait da azken finean, eta osagaietako bat falta denean, besteek ematen dizutena, erdizka geratzen da.

Marliken zenbait abestitan, kantatzeaz gain, gitarra ere jotzen dut. Hortaz, bakarka ere lortzen dut nolabait entseatzeko. Bestela, musika jarri eta horren gainetik abesten dut. Nola edo hala lortzen dut zerbait egitea, baina ez da berdina.

**Badira ia hiru urte Lisboan bizi zarela. Hor ba al duzu proiekturik esku artean?**

Portugalgo fadoen inguruko ikastaro bat egin nahi nuen, baina pandemia zela eta, azkenean ezin izan nuen egin. Bertsolaritza nator ni, eta





fadoek atentzioa eman zidaten. Bertsolaritzarekin izan ditzaketen loturak aztertu nahi nituen.

Duela hamar urte inguru entzun nituen fadoak lehenengoz. Gitarra batekin eta ahotsarekin soilik sortzen dira, eta iruditu zitzaidan zerbait izan behar zutela inprobisaziotik. Fado tabernetara joaten eta jendeari galdetzen hastean, esan zidaten baduela inprobisazio puntu bat, baina ez bertsolaritzak daukanaren berdina, agian. Bertsolariok melodia jakin bat eta gai jakin bat izaten ditugu, eta horrekin sortzen dugu letra. Fadisten kasuan, aldeztu aurretik dituzte letrak, mila melodia posiblerekin bateratzeko. Fadistek gitarra batekin adosten dute, giroaren arabera edo bururatzen zaienaren arabera, zein tonalitaterekin abestuko duten. Eta horrela hasten dira. Dakizkiten fado guztietatik, zein kantatu aukeratzeko dute, baita haien artean nola konbinatu ere. Bitxia da, baduelako inprobisazio puntu bat gitarraisten aldetik ere.

#### **Lisboan egonda, nola bizi izan duzu pandemia?**

Itxialdia ezartzean, nolabait, bere espazioan harrapatuta geratu zen gutako bakoitza. Hala ere, lehen baino gertuago geundela sentitu nuen hainbatetan; hainbeste bideo dei eta abar egiten genituen... Baita aspalditik hitzik egiten ez genuen jendearekin ere. Uste dut pandemiak hurbildu egin nauela familiarengana, baina, aldi berean, fisikoki urrutiago egon naiz, berez.



Marlik taldea. DAVID JULIA

Bestalde, uste dut itxialdiaren aurretik erritmo frenetiko batean bizi ginela eta, bat-batean, itxialdiarekin, konturatu ginela ez dela posible erritmo horri eustea. Gero eta azkarragoa zen erritmoa, egunerokotasunean leku batera eta bestera iristea, eta uste dut egoera honek guztiak erakutsi digula gauzak polikiago egiten.

Denboraren eta espazioaren arteko harreman horiek gogoeta eginarazi didate.

#### **Itxialdiak, horretaz gain, sormenerako aukeraren bat ere irekiko zuen agian...**

Gure etxeko leihotik begira egoten nintzen sarri, eta kalea ikusten zen handik. Kale hori aztertzen hasi nintzen pixkanaka, eta letra ugari idatzi nituen ikusten nuenari buruz: nire bizilagunak, egunero pasatzen zen zabor biltzailea, egunero pareko teilatura joaten zen txori bat... Gu geldirik geunden baina kanpoan, nolabait, munduak jarraitu egiten zuen. Letra asko sortu nituen horrela, lehen begiratzen ez nituen gauza horiei erreparatuta. Eta, esan bezala, Marliken bigarren diskoa ere bada itxialdiaren emaitzetako bat.

Gerora konturatu naiz tristurara jotzen dutela garai hartan idatzi nituen letrak. Gure azken diskoa entzun dutenek esan izan digute aurrekoa baino astunagoa dela, letrak gogorragoak direla; baxuaren presentzia ere handiagoa da. Baina normala da, pandemiaren aurretik hasi ginen abesti horiek sortzen, baina pandemia garaian amaitu genuen prozesua. Orduan, sormenean ere eragin zuen horrek. Espero dut gure hurrengo lana alaiagoa izatea; letrei dagokienez, behintzat, saiatzen ari naiz.

#### **Baduzu ohitura unean-unean bururatzen zaizuna idazteko?**

Bai, nik uste dut bertsotan aritu izan den edonork baduela ohitura. Bat-batean esaldiren bat edo ideia bat bururatzen zaigu, eta azkenerako, kafetegi batean hartutako ezpainzapi batean idazten dugu. Lehen koadernotxo bat eramaten nuen, baina orain, sakelakoarekin, edozein unetan gorde dezakezu han ohar bat, edo *Whatsapp* bidez bidal dezakezu gorde nahi duzun esaldia.

Askotan gertatzen da zerbait idaztea, une horretan pentsatzea zentzua duela, eta hurrengo egunean, irakurtzean, pentsatzea: "Zertarako idatzi ote nuen hori? Ez dut ulertzen zer esan nahi nuen". Baina, tira, uste dut sormenak lekuarekin eta momentuarekin zerikusi handia duela. Eta ez da erraza, bestalde, une jakin batean eta sentimendu jakin batekin idatzitakoari, gero,



Marlik taldea. DAVID JULIA

**"AZKEN DISKOA ENTZUN DUTENEK  
ESAN IZAN DIGUTE AURREKOA  
BAINO ASTUNAGOA DELA"**

**"PANDEMIAK HURBILDU EGIN NAU  
FAMILIARENGANA, BAINA FISIKOKI  
URRUTIAGO EGON NAIZ"**

**"BERTSOLARITZAK EMAN  
DIZKIT SORTZEN JARRAITZEKO  
GOGOA ETA GAITASUNA"**

doinua eta melodia jartzea; sentitu duzunari  
doinua eta melodia jartzea.

**Oso gaztetatik bertsolaritzan nahiz piraguismoan  
aritutakoa zara zu. Zerbait geratzen al da Maialen  
Velarde gazte hartaz?**

Nik uste dut gauza guztiek ematen digutela  
zerbait. Garai hartatik, oraindik geratzen zait  
gauza berriak probatzeko gogo; gaztaroan hori  
izan zen nire esperientzia, mundua jateko gogo  
hori banuen. Esperientzia berriek ase egiten  
gaituzte, eta guztiek uzten digute zer edo zer.

Bertsolaritzak, esaterako, eman dit sortzen  
jarraitzeko gogo. Baita gaitasuna ere, nire  
irakasleek hala egiten erakutsi zidatelako.  
Piraguismoak, bestalde, lehian arreta jarri ahal  
izatea eman dit, baina lehia diodanean, zentzu  
onean diot. Ikasi nuen, entrenamenduarekin  
eta esfortzuarekin, pazientziarekin eta  
denborarekin, hel gaitzkeela iristeko gai ez  
ginela iruditzen zitzaigun helmugetara. Ikasi  
nuen pazientzia izan behar dela eta bidean lan  
asko egin behar dela; jarritako helmugetara  
iristen bazara, ondo, eta iristen ez bazara,  
hurrengo batean iritsiko zara edo helmuga  
berriak agertuko dira. ■■■



# Kasualitatez sartzetik, pasio bihurtzera

Iban Barba Urdangarin, udaltzaina

Hamasei urte daramatza udaltzain lanetan Zumaian, azken hamabiak udaltzainburu, baina esan daiteke Iban Barba Urdangarin (Orio, 1981) kasualitatez hasi zela lan honetan. Surflari porrokatua bere garaian, albaitari izateko gogoia zuen, baina “pasio” bihurtu zaion lanbide hau gurutzatu zitzaion bidean.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

**O**rain udaltzainburuaren uniformea darama, baina Iban Barbak ez zuen txikitan polizia eta lapurretan jolasten. “Gehiago esango dizut: lan honetan hasi baino urtebete lehenago ez zitzaidan okurritu ere egingo”, dio. “2005. urtean [udaltzain izateko] lan poltsa sortu zuten hemen. Momentu horretan, nire lekua zein zen jakin gabe nengoen. Selektibitatea gaingitu nuen, baina une hartan surfarekin gaixotuta nengoen; surfa bakarrik nuen buruan. Albaitaritza ikastea zen nire ideia, Zaragozan [Aragoi, Espainia], baina ez nuen neure burua kostatiki urruti ikusten. Ingurumen teknikarirako goi mailako ziklo bat egin nuen, lan horretan aukera asko zeudelakoan; baina ez zen ezer ateratzen. Denbora batean edozer lanetan ibili nintzen, 24 urterekin neure buruari galdetu nion arte ea zertan nenbilen. Derrepente, Zumaian lanpostu honen aukera sortu zen, eta apuntatu egin nintzen”.

Zumaian lanean hasi zen arte herria ezagutu ere ez zuela egiten dio. “2000. urtean sorosle lanetan ibili nintzen Zumaian. Iraila zen, eta hamabost egun falta ziren [hondartza] denboraldia

amaitzeko. Orion ari nintzen lanean, eta jendea behar zuten Zumaian. Galdetu nuen ea zer hondartza zeuden Zumaian, eta bi zeudela esan zidatenean, Santiago eta Itzurun, ez nuen sinesten. Herrira heldu, eta jendeari galdezka heldu nintzen Itzurunera; harrituta geratu nintzen: ‘ze plaia da hau?’. Orion ez zuen inork hondartza hori ezagutzen”, dio.

## 24 orduko lanpostua

2005ean hasi zen udaltzain lanean, eta 2012tik da udaltzainburua. Udaltzainburuena 24 orduko lanpostua dela nabarmendu du Barbak. “Nahiz eta asteburuak jai izan, mugikorra eguneko 24 orduetan duzu martxan, eta zerbait larria gertatu bada, lanera etortzerako jakinaren ganean zaude. Beti dakizu, une oro, herrian zer gertatu den. Gero, beti daude bilerak, asteko planifikazioak, udaltzainen txandak zehaztea, bezperan gertatutako zerbaiten segimendua egitea, edota lehenbailehen konpondu behar diren gauzak. Ez dago aspertzeko denborarik; lana ez da inoiz bukatzen”.

Hein batean bulegoko lana egiten du, baina kalera ateratzea ere tokatzen zaio sarritan.



*irrimarra*





“Plantilla indartu da azken urteotan, baina txirrindularitza proba bat dela, kultur ekitaldi bat dela, oporrak eta bajak direla, laguntzera etorri behar izaten da”. Herrian ekitaldi asko egiten direla gogoratu du Barbak. “Proba edo ekitaldi horien guztien aurretik lan zikin asko egin behar izaten dugu, ikusten ez den lana. Orain, pandemiarekin, asko jaitsi da, nabarmen. Baina, bestela, apiriletik urrira, astebururo egoten da zerbait hemen. Zumaia bizirik dagoen herria da; hori ona da herrirako”.

Herri txikia izanda ere, Zumaiak 10.000 bizilagun baino gehiago ditu gaur egun. Udaberrietik aurrera eguraldi onarekin kostaldera etortzen diren bisitariak eta turistak gehitu behar zaizkie. Horrek lana areagotu egiten duela dio udaltzainburuak. “Eguraldi oso onarekin, azken Aste Santuan bezala, zazpi edo zortzi udaltzaineko lantaldea izanda ere gainezka ibiliko ginateke. Turismoa puri-purian dago, ez Zumaian bakarrik, euskal kostalde guztian baizik, eta egun potenteetan udaltzain gehiagorekin zerbitzu hobe emango genuke”. Duen plantillarekin konforme dago, baina bisitariak artatzeko, oro har, uste du udal zerbitzuak indartu behar direla. “Uda garaian, zenbat eta jende gehiago izan, orduan eta dei gehiago izaten dugu: bat erori dela, besteari lapurtu diotela, auto batek txakur bat harrapatu duela, Algorrin mareak harrapatuta geratu direla... Dei pila bat izaten da”. Onartu du, baita ere, TAO sistema aplikatu denetik lan karga

kendu dietela udaltzainei. “TAO berria da Zumaian; 2017tik dugu, eta esango nuke azken herrietako bat izango ginela Kantauriko kostaldean sistema hau aplikatzen. Ordutik, sumatu dugu jendeak hobeto aparkatzen duela. Gauzak hobetu daitezke, baina guri honek sekulako lan karga kendu digu”.

Zumaian *txapero* bezala ezagutzen dira udaltzainak. Barba ez da hitz horren oso zalea. “Jaiotzez ez naiz zumaiarra, eta niretzat hitz ezezaguna da. Egia esanda, grazia handirik ez dit egiten, baina herriko edadetuekin hitz eginda, eta bere esanahia jakinda, ulertzen dut”. Txaperoak batzuentzat, *municipak* gazteagoentzat, udaltzainak Euskal Poliziaren parte dira,

## Iban Barba Urdangarin

- **Adina:** 40 urte.
- **Ikasketak:** Goi mailako Ingurumen Teknikaria.
- **Lanbidea:** Udaltzainburua.
- **Udaltzaina ez banintz...** Egun batetik bestera hartutako erabakia izan zen... Bada, surflaria ezin bazen, al baitaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Elkar ikustean semeak ematen didan besarkada. Horrek laneko pena guztiak kentzen dizkit.



Ertzaintzarekin batera. Ertzainek bezala, udaltzainek ere formazio saioak egiten dituzte Arkautin, Ertzaintzaren akademian. “Herrietako udaltzainek “berdin du nongoa) bederatzi hilabeteko formazioa egin behar dute Arkautin. Gero, egokituko zaizun edo joango zaren herrian erabakiko dute zer erreminta izango duzun, pistola, borra edo bestelakoren bat izan. Agian herritarrek ez dute jakingo udaltzainek eta ertzainek formazio bera jasotzen dutela, baina konturatu naiz udaltzainen beste kontzeptu bat dutela orain herritarrek; profesionalagoak ikusten gaituztela. Baina garbi utzi nahi dut gure aurreko udaltzainek zuten formazio ezarekin nahikoa egiten zutela”.

### **Urte gogorra**

Herritar askok bezala, pandemiaren eragina nabari izan du Iban Barbak. Lan honetan hasi zenetik urte gogorrena izan dela azpimarratu du. “Oso gogorra izan da. Ezjakintasuna zegoen, beldurra... Legeak egun batetik bestera aldatzen zituzten; igande arratsalde edo iluntze batean pasatzen zizkizuten, eta hurrengo egunean indarrean sartzen ziren. Irakurri, ikasi eta barneratu behar zenituen, hurrengo egunean herritarrei azaltzeko. Ez ginen isunak jartzen hasiko; era pedagogikoan azaldu behar genizkien neurri berriak herritarrei. Hasieran, material falta ere izan genuen, eta hor herritarrek primeran portatu ziren”.

Pandemia garaian delitu motak ere aldatu egin zirela nabarmendu du udaltzainburuak. “Gabon garaian Internet bidezko iruzurrak asko hazi dira. Pandemiarekin etxean gehiago egon gara, erosketa gehiago ere egin ditugu Internet bidez, eta iruzurrak ikaragarri igo dira”.

Argia ikusten du, baina oraindik ere tentu pixka batekin ibiltzea eskatzen du. “Ari gara argi pixka bat ikusten, eta txertoak erakutsi du funtzionatzen duela. Seguru datorren urtean santelmoetako prozesioa ikusiko dugula, baina uda bukatu arte tentu pixka batekin ibili behar dugu”.

“Udaltzainen artean beterano bezala ikusten naute. Beterano ni? 40 urte besterik ez ditut eta!”, dio irribarre batekin. Gaztea izanda, non ikusten du Iban Barbak bere burua etorkizunean? “Pribilegiatua naiz. Lan hau pasioa da, asko gustatzen zait. Zumaian oso-oso gustura nago, oso pozik etortzen naiz lanera, eta Zumaian jubilatuko nahiko nuke. Oriotarra naiz, zumaiarrei kariñoa diet, eta pixka bat zumaiarra ere sentitzen naiz. Hemen hasi nintzenean, jakin zutenean oriotarra nintzela, arraunaz hitz egiten hasi zitzaidan bat. Estropadak ondo daude, baina... ‘Arraunagatik ez gara, bada, haserretuko’, esan nion”. Eta surfa? Non geratu da surfa? “Orduko nire pasioa zen. Hamabi urtetik 24ra surfa besterik ez nuen; gaixo nengoen. Ordutik alde batera utzita daukat, baina hiru urteko umea dut, eta badut uretara sartu eta semeari surfa erakusten hasteko gogoia”. ■



UZTAILAREN 2<sup>TIK</sup> IRAILAREN 10<sup>ERA</sup>

# 2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K erlo ✨ KH LI ZH



**Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):**

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz '**lehiaketak@ukt.eus**' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

## SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTEKO ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN

# Gatazkarik gabeko oporrak



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Iritsi dira oporrak eta haurrak pozik daude eskolara joan behar ez dutelako. Gurasoen kasuan, denetarik ikus dezakegu: batzuk lasai, ordutegirik gabe egoteagatik; besteak larri, ordutegiak ezin egokitu dabilatzalako, pozik baita ere, haurrekin denbora gehiago egoteko aukeragatik, edo gainezka, horrexegatik.

Hasiera nahiko positiboa izaten da, gogotsu gaude gehienok, baina iraila ailegatzen denean eta bakoitzak bere bizipenak azaltzen dituenean, orduan izaten da hausnarketarako momentua. Zergatik sortu dira gatazkak? Zergatik ez ditugu gure irteerak gozatu? Zer egin dugu edota zer ez dugu egin irailera leher eginda ailegatzeko?

Gehienetan egiten den akatsa izaten da helduen beharrak haurren beharren aurretik jartzea. Museoak edo erakusketak ikustera joan, jatetxeetan presarik gabe afaldu, kotxean ibilbideak zenbait lurralde zeharkatzen... horrelako gauzak egitea gustuko ditugu eta egin nahiko genituzke, baina

helduarentzat gozamenak izan daitekeena haurrak frustrazio momentu bezala bizi ditzake, eta oporraldiak ilundu egiten dira gatazkak ugaritzen direnean. Horrexegatik, haurrak ditugunean, komeni da askotan gure planak aldatzea. "Baina ikasi beharko dute!", esango duzue zenbaitzuek. "Edo ez", nire erantzuna. Haurrek behar dutena kontuan izan, disfrutatu elkarrekin, eta gogoratu haurtzaroa oso urte gutxi direla, eta bueltatuko direla oporraldi ezberdinak egiteko garaia. Eta zer behar dute haurrek? Natura, denbora libre, mugimendua, jolasa, parkeak, kotxerik ez, bokatak lurrian eserita bai, jatetxeak gutxitan; isiltasuna eskatzen duten tokiak, urruti. Bustitzea, zikintzea, eraikitzea, sortzea... eta, batez ere, hori guztia egiteko askatasuna.

Espektatibak izatearekin ere kontuz. Nire alaba helduenarekin hondartzara joan nintzen lehen

**DENOK LASAI EGOTEKO  
AUKERA ESKAINTZEN  
DIZKIGUTEN EGOERAK  
BILATU BEHAR DITUGU**

aldian, liburua sartu nuen motxilan. Inuzentea ni. Espektatiba gehiegi izateak gure frustrazioa handitu dezake. Haurrekin A, B, C edo plan gehiago izan behar ditugu horrela aukera anitz izateko eta guztion beharretara egokituko diren jarduerak aurkitzeko.

Eta, zalantzarik gabe, gako nagusia denon lasaitasuna bilatzea izango litzake. Denok lasai egoteko aukera eskaintzen dizkiguten egoerak bilatu behar ditugu. Gogoratu hasieran guztiz egokitu behar dugula haurren beharretara, eta gero, hazten doazen heinean, egoera orekatzen hasiko da eta gaitasuna izango dute beraiek ere gurrera egokitze. Baina orain, helduak gu gara, eta gure garuna gai da egoera ezberdinetara egokitze.

Malgutasun kognitiboa dugu, hau da, ideia bat alderatu eta beste bat aurkitzeko gaitasuna dugu. Haurrek oraindik ez. Beraien garuna ez da garapen fase horretara iritsi; beraz, hori kontuan izan.

Eta besterik gabe, udako opor zoriontsuak izan ditzazuela espero dut, bakoitzak jakingo du zer behar duen hori lortzeko, edo hobeto esanda, seme-alabek zer behar duten. ■




## ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA

Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com






## DOMINOAN

Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.



## Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?




## SUDOKU

Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuok, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRIL hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

|   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|
| U | I |   |   | T | Z |
|   |   | Z |   |   | U |
|   | L |   |   |   | T |
| A |   | T |   | L | I |
|   | A |   | T |   |   |
|   | U |   |   | Z |   |

|    |    |   |   |    |    |
|----|----|---|---|----|----|
|    |    | G |   | RR |    |
| RR | A  |   | O |    |    |
| I  |    |   | G |    | RR |
| L  |    |   |   |    | O  |
|    | L  |   |   | I  | A  |
|    | RR |   | L |    | G  |






Ai enel Trapolinera igo eta irrist egin du giza-joak! Zein da bere itzal zuzena?


## Itzala



## Hamaitakoa



Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.



Ordna itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanaz, eta txikienari 6.

## Handitik txikira




## Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

## PUBLIZITATEA



**BASUSTA**  
erretégia · asador  
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73  
20750 Zumaiá (Gipuzkoa) 943-86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com

**EDU**  
ZUMAIKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaiá, Gipuzkoa  
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



**EGOKI**



*Erloju  
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87

**ekin**  
ERREKIBERRA, 11

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943-14 30 97  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**



**ERNIO  
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

**Entz**  
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·  
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

**Galdona**



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

**Garoa**

Carlos Cifero - Ainhoa Olazola  
tel.: 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)

**GLENCOE**  
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com

**Gure Txokoa**  
taberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaiá  
Tel.: 943-86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelese praktikatzera  
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE  
ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

**Iriñdo optika**  
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orotarako soinu  
eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

**IRUITZ**  
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta  
tratamendu  
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60



# GIZONEZKOAK

## KAE1 LIGA

| Arraunlaria          | Adina | Urteak klubean | Jaioterria |
|----------------------|-------|----------------|------------|
| Aritz Alberdi        | 24    | 8              | Azkoitia   |
| Xabier Altzibar      | 27    | 13             | Zumaia     |
| Iñaki Aristi         | 26    | 3              | Zumaia     |
| Joseba Aristi        | 31    | 16             | Zumaia     |
| Aitor Aristi         | 22    | 11             | Zumaia     |
| Endika Arregi        | 21    | 4              | Azpeitia   |
| Odei Arrizabalaga    | 32    | 8              | Itziar     |
| Joanes Balenciaga    | 24    | 10             | Azkoitia   |
| Imanol Barrueta Beña | 24    | 2              | Zumaia     |
| Ibon Etxabe          | 21    | 9              | Deba       |
| Imanol Etxaniz       | 20    | 8              | Azpeitia   |
| Ibon Goenaga         | 21    | 8              | Azpeitia   |
| Ander Iriondo        | 22    | 10             | Zumaia     |
| Ion Iriondo          | 25    | 8              | Zumaia     |
| Eñaut Larrañaga      | 25    | 10             | Azkoitia   |
| Eneko Unanue         | 24    | 9              | Zumaia     |
| Manex Unanue         | 18    | 5              | Azkoitia   |
| Aitor Zubikarai      | 24    | 2              | Itziar     |
| Peru Tolosa          | 24    | -              | Zumaia     |

Entrenatzailea  
Iñaki Larrañaga

**AUPA TELMO DEUN!**

# EMAKUMEZKOAK

## ETE LIGA

| Arraunlaria        | Adina | Urteak klubean | Jaioterria      |
|--------------------|-------|----------------|-----------------|
| Helena Albizu      | 50    | 2              | Zumaia          |
| Olatz Bereziartua  | 21    | 8              | Zestoa          |
| Alaine Bereziartua | 23    | 10             | Aizarnazabal    |
| Eneritz Diez       | 19    | 9              | Zestoa          |
| Jule Egiguren      | 21    | 10             | Zumaia          |
| Garazi Eizaguirre  | 19    | 6              | Zestoa          |
| Iraia Fernandez    | 17    | 0              | Azkoitia        |
| Izaskun Gallardo   | 44    | 1              | Elorrio         |
| Marta Gogorza      | 16    | 0              | Azkoitia        |
| Irati Gurrutxarri  | 23    | 1              | Zarauz          |
| Leire Ibar         | 17    | 1              | Azpeitia        |
| Uxoia Irigoyen     | 33    | 2              | Getaria         |
| Mirari Ituebe      | 17    | 0              | Azkoitia        |
| Amane Jimenez      | 16    | 0              | Azpeitia        |
| Gurutze Lopetegi   | 35    | 2              | Zestoa          |
| Helena Merino      | 24    | 1              | Badalona        |
| Aitziber Nazabal   | 38    | 0              | Etxarri-Aranatz |
| Nahikari Osa       | 16    | 0              | Zumaia          |
| Maite Silveti      | 17    | 1              | Zumaia          |
| Jone Urbietia      | 24    | 0              | Zumaia          |
| Aintzane Urbietia  | 29    | 10             | Zumaia          |
| Matxalen Zapirain  | 23    | 1              | Plentzia        |

Entrenatzailea  
Jose Enrike Manterola

**AUPA TELMO DEUN!**

## BABESLEAK



## ARRAUN DENBORALDIA 2021



# ESTROPADEN EGUTEGIA

## UZTAILA

| Eguna | Estropada                     | Herria          | Lehiaketa |
|-------|-------------------------------|-----------------|-----------|
| 3     | Donibane Lohizuneko Estropada | Doniba Lohizune | ETE/KAE1  |
| 4     | Sestaoko Bandera              | Sestao          | ETE/KAE1  |
| 10    | Donostiarr                    | Donostia        | ETE       |
|       | Camargoko Bandera             | Malliaño        | KAE1      |
| 11    | Isuntza                       | Lekeitio        | ETE       |
| 17    | Zumaiko Ikurrina              | Zumaia          | ETE/KAE1  |
| 18    | Orioiko Bandera               | Orio            | KAE1      |
| 24    | Marina de Cudeyo Bandera      | Pedreña         | KAE1      |

## ABUZTUA

| Eguna | Estropada                  | Herria          | Lehiaketa |
|-------|----------------------------|-----------------|-----------|
| 1     | Oreretako Bandera          | Orereta         | ETE       |
| 7     | Astilleroko Bandera        | Astillero       | KAE1      |
|       | Ondarroako Bandera         | Ondarroa        | ETE       |
| 8     | Getariako Estropada        | Getaria         | KAE1      |
| 14    | Castro Urdialeseko Bandera | Castro Urdiales | ETE/KAE1  |
| 15    | Castro Urdialeseko Bandera | Castro Urdiales | ETE       |
| 21    | Plentziako Ikurrina        | Plentzia        | KAE1      |
| 22    | Ane Aizpuru Oroimenekoa    | Bilbo           | ETE       |
|       | Bilboko estropada          | Bilbo           | KAE1      |
| 28    | Erandioko bandera          | Erandio         | ETE       |

## IRAILA - KONTXAKO BANDERA

| Eguna | Estropada      | Herria   | Lehiaketa     |
|-------|----------------|----------|---------------|
| 2     | Sailkapena     | Donostia | TKE/Euskotren |
| 5     | 1. jardunaldia | Donostia | TKE/Euskotren |
| 12    | 2. jardunaldia | Donostia | TKE/Euskotren |

AUPA TELMO DEUN!







# Mamua haragitu da (I)

Ekainaren 8an izan zen Ozeanoen Munduko Eguna, eta sare sozialak zein komunikabideak planetako ur masa handien aldeko mezuez bete ziren. Plastikoen sortutako kutsadura, gehiegizko arrantza, organismo inbaditzaileak, itsas espezie askoren kontserbazio arazoak edo klima aldaketak itsasoan duen eragina izan dira, besteak beste, ospakizun horren harira taularatutako aktore nagusiak.

Testua: **Gonzalo Torre.**  
Argazkiak: **Utzitakoak.**

**G**uk, korrante honek herrestan eramanda, hurrengo bi artikuluetan, klima aldaketak hurbileko itsasoetako parametro ozeanografiko nagusietan, ekosistemetan eta itsas espezieetan eragiten dituen aldaketak aztertuko ditugu.

Klima aldaketa oraindik iristeko zerbait dela dioten mezuak nagusi dira oraindik ere, baina frogak gehienek

erakusten dute aldaketa hori gauzatu egin dela eta dagoeneko horren ondorioak pairatzen ari garela. Eta euren esperientzia apalean oinarrituta, hori egia dela sentitzen dute kaletar askok ere. Baina zein dira froga horiek? Hain nabarmenak dira? Ondorengo lerroetan Kantauri itsasoko aldagai ozeanografiko nagusiek azken hamarkadetan jasandako kanbiamenduak erreperasatuko ditugu, eta

norberak aukera izango du ondorioak ateratzeko .

Klima aldaketak ozeanoan dituen ondorioen ebidentzia sendoenak eta fidagarrienak parametro fisiko-kimikoen aldaketa joera iraunkorrak lirarteke. Eta, adituek diotenez, azken hamarkadetan itsas eskualde guztietan adierazle fisiko-kimiko gehienek aldaketa joera adierazgarriak izan dituzte.

### Temperatura eta gazitasuna

Eragin klimatiko eta atmosferikoari erantzuten dioten itsasoko uraren lehen propietateak temperatura eta gazitasuna dira. Horiek dira, era berean, dentsitatearen araberrako ur masen estratifikazioa zehazten dutenak.

Kantauri itsasoan, 1970etik aurrera itsasoko azaleko urak berotzeko joera nabarmena izan du, eta haren tenperaturak urteko  $0,02^{\circ}\text{C}$  egin du gora. Azken hamarkadetan, tenperaturaren iguera hori seguru asko are handiagoa izango zen, eta hamarkada bakoitzeko  $0,26^{\circ}\text{C}$  gehikuntza ere aipatu izan da. Gainera, azken tasa hori handiagoa ( $0,31^{\circ}\text{C}$ ) izango zen irailetik azarora eta apiriletik ekainera bitarteko aldietan.

Sateliteen datuak erreferentzia gisa hartzen dituzten ikerketek —bibliografian jasotako en orde— berotze tasa hura are handiagoa dela erakusten dute.

### CO<sub>2</sub>-aren kontzentrazioa eta pH-a


Bi parametro horien kontzentrazio aldaketei buruzko informazio historikoa tenperaturari dagokiona baino askoz urriagoa da. Hala ere, munduko ozeano guztietan, gizakiak sortutako CO<sub>2</sub>-aren parte bat uretan

xurgatzen denez, egungo ozeanoen azaleko batez besteko pH-a aurrekaririk gabeko mailetara jaitsi omen da eta azken 20 milioi urteetan, gutxienez, inoiz ez zen hain baxu egon.

Gure itsaso hurbilenetan, uretan disolbatutako gehiegizko CO<sub>2</sub> kopuru horrek hamarkadako pH-aren  $0,016$ ko jaitsiera eragin du. Aldaketa hori itsas azalean atzeman da, baina, baita ere,  $100$  eta



### pH-aren eskala



Temperatura eta gazitasuna neurtzeko tresna zaharrak. Museo della Scienza e della Tecnologia "Leonardo da Vinci", CC BY-SA 4.0.

pH-aren eskala.

700 m arteko ur sakonetan. Kopuru txikia dirudi, baina jaitsiera horrek esan nahi du Kantauri itsasoko ura hamarkadako % 16 azidoagoa dela, eta ezagun da horren ondorioak oso larriak izan daitezkeela (ikus *Baleike* aldizkariaren 288. zenbakia). Ikerketa batzuen arabera, azidotze tasa horren erdia 1970-2006. urteen arteko aldian eman da.

### Itsas maila

Itsas mailaren batez besteko altuera da klima aldaketak kostan duen eraginaren azterlanetako parametrorik garrantzitsuenak. Itsasoko uraren tenperatura igotzearen ondorioz, uraren bolumena handitu egiten da. Gainera, berotze globala dela eta, glaziarren urteak itsasoetan pilatutako ur likidoaren kantitatea handitu egin du. Horren ondorio nabarmenena da itsasoaren batez besteko maila urteko 3,2 mm handitu dela 1993. urtetik aurrera (igoera hori XX. mende osoan eman dela ziurtatu dute, baina nabariagoa izan da mende horren azken hamarkadan eta XXI. mendearen hasierako urteetan).

Uraren batez besteko maila igotzearen ondorioz, azken mende erdian euskal kostaldearen azalerak ia 3 hektarea galdu dituela estimatu da eta, hainbat ikerketaren arabera, Zumaia izango da etorkizunean fenomeno hori gehien pairatuko duen euskal kostaldeko udalerrietako bat.

Klima aldaketara egokitzeak hainbat azterketa eta ikerketa eragin ditu. Besteak beste, 2020an, "Klima aldaketaren erronkari egokitzeko EAEko itsasertza babestu eta antolatzeko lurralde plan sektorialaren berrikuspen eta egokitzapenerako aurretiazko azterketak eta diagnostikoa" ezagutzera eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Lan horretan —egituretan eta atmosferarako gasen emisioetan aldaketarik izango ez balitz— Zumaia 2100. urtean izan lezakeen itxura erakusten da.




Zumaia Elorriaga aldetik 2100. urtean.

EUSKO JAURLARITZA

Zumaia Artaditik 2100. urtean. EUSKO

JAURLARITZA





Bizkaiko Golkoko itsaslastarren sistema. Koutsikopoulos and Le Cann-etik (moldatuta).

**URAREN IGOERAK  
ALDAKETA HANDIAK  
ERAGINGO LITUZKE  
HIRIGINTZA EGITURA  
OROKORREAN**

**IKERTZAILEAK OHARTU  
DIRA KANTAUIN  
OLATUEN ENERGIA ETA  
DENBORALE KOPURUA  
HANDITU EGIN DIRELA**

Hala, 3. eta 4. irudietan ikus daitekeen bezala, herriak historian zehar erriari irabazitako basadi edo polder batzuk galduko lituzke; eta uraren igoerak aldaketa handiak eragingo lituzke hirigintza egitura orokorrean: bizitegi lurrak eta industrialdeak galduko lirateke (Basadi, Axular, Beheko plaza, Ardantza, Estazioa, Basusta...), hondartzetako gune zabalak eta kirol ekipamendu batzuk (futbol zelaia, adibidez) ur azpian galduko lirateke eta errepideak, portuko hainbat eremu, edo maila baxuan kokatutako plaza eta parkeak (Amaia plaza, Ignazio Zuloaga plaza,...) putzu bihurtuko lirateke.

Hori gutxi balitz, itsasoaren batez besteko mailaren igoeraren ondorioei itsasgorak

berez eragindako uholdea ere gehitu beharko litzaieke, haren eragina nabarmen biderkatu bailitzateke.

## Itsaslasterrak eta olatuak

Olatuen eta itsaslastarren eragile nagusia haizea da eta, itsaslastarren kasuan, gainera, uraren dentsitatearen diferentziak ere korronteak sortzen ditu. Beraz, atmosfera ozeano sistemaren tenperatura handitzeak klimaren dinamikaren aldaketak ekarriko ditu, nahitaez. Izan ere, oreka berri bat lortzeko bilakaerak energia garraioaren doikuntzak eragingo ditu, eta horrek zuzeneko ondorioak izango ditu haizearen norabidean eta intentsitatean.

Itsaslastarren kasuan, informazio historikoaren eskasiak zaildu egiten du ereduaren joera zein den jakitea. Hala ere, aldaketa puntual batzuk hauteman dira, adibidez, Neguko Korrontea izeneko itsaslasterrean.

Beste alde batetik, olatuei dagokienez, ikertzaileak ohartu dira Kantauri itsasoan olatuen energia eta denborale kopurua handitu egin direla. Ikertzaile berberek aldaketa horiek klima aldaketarekin lotzen dituzte, ia zalanztarik gabe.

Aurreko ataleko diagnostikoan olatuek Zumaiaiko zenbait puntutan eragingo lituzketen arazoak ere protagonista dira eta, besteak beste, toki kaltetuenen artean, Zumaia eta Getaria arteko errepidea, bokaleko dikea edo Itzurun hondartza aipatzen dira.

Honaino, klima aldaketak parametro ozeanografiko garrantzitsuenetan eragin dituen aldaketa nagusien lehen errepasoa egin dugu. Hurrengo artikuluan, klima aldaketak organismoetan eta itsas ekosistema hurbilenetan dituen inpaktuez arituko gara. ■■■

# GIPUZKOAK

# BADU

## ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**European  
desberdintasun  
maila txikienetarikoa**  
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
**ERAIKIZ**  
#GipuzkoarKonpromisoa

# Bikos&cafe, balioak dastatuz



Muxu baten goxotasunarekin eraiki dute Juan Jose Torres eta Desiree Zozaya bikoteak Bikos&Cafe. Izan ere, muxua esan nahi du vico galiziar hitzak, eta mimo eta goxotasun hori dastatu ahal izango da Zumaiaiko izozki denda eta kafetegi berrian. Produktu ona eta kalitatezkoa, bertakoa, bidezko merkataritzakoa, garaikoa eta 0 Kmkoa. Horiek dira Bikos&Cafe-k barnebiltzen dituen oinarriak.

Torres euskalduna da, baina gurasoak galiziarrek ziren, eta bi lurraldeen konexioa bilatu du Bikos&Cafe-n, hasieratik gainera. Izan ere, negozioaren ideia Pontevedrako izozki denda eta kafetegi bateko terraza batean sortu zitzairen. Askok gustatu zitzairen kontzeptua, eta Zumaian antzekoa sortzea bururatu zitzairen. “Kapritxo nahi

genuen, gurea izango zen zerbait sortzea. Gainera, ideia edo kontzeptu interesgarria izan zitekeela Zumaiaarako esan zigun alabak. Gogoak eta nahiak bat egin zuten, eta horrela sortu da Bikos&Cafe”, azaldu du Torresek.

Denda eta kafetegi izateaz gain, balio batzuk eduki behar zituen negozioak, eta produktuetatik eta lana egiteko modutik hasi ziren Torres eta Zozaya. Hilabeteak igaro dituzte produktu onenaren bila, baina kalitateaz gain, bertakoa eta ahalik eta gertukoena izan zedin nahi zuten. Horrela, Zumaiaiko baserritar baten esnea erabiliko dute, eta barazkiak eta frutak ere bertakoak eskainiko dituzte. Kafea eta txokolatea, berriz, Euskal Herrikoak izango dira. “Produktu ona, eta etxekoa”, diote.

Bi adar izango ditu Bikos&Cafek: izozki denda eta kafetegi. Batetik, izozki artisauek eskainiko dituzte. “Izozkiak italiar erara, hori da eskaini nahi duguna. Ez ditugu geuk egingo izozkiak; obratzaile batekin egingo dugu lan. Hark egingo ditu izozkiak; hori bai, guk esandako moduan. Guztiz artisauek izango dira, beraz. Oraingoz 36 zapore eskainiko ditugu, eta espero dugu zumaiaerrek eta herrira gerturatzen direnek gustukoak izatea”, gaineratu du.

Bestetik, kafetegiko protagonistak kafe ona, eta gosariak eta askariak izango dira. “Kafe ugari dastatu dugu, eta ziur gaude kafe oso ona emango dugula. Gainera, gosariak eta askariak beste modu batera eskaini nahi ditugu: ekologikoak, osasuntsuak eta bertako produktuarekin egindakoak. Frutak, fruituak, jogurtak, izozkiak edota irabiatuak izango dira gosarietako eta

**"IZOZKIAK ITALIAR ERARA, HORI DA ESKAINI NAHI DUGUNA. EZ DITUGU GEUK EGINGO IZOZKIAK; OBRATZAILE BATEKIN EGINGO DUGU LAN. HORI BAI, GUK ESANDAKO MODUAN"**





askarietako elementu nagusiak”, agertu du Torresek.

Krepeak eta gofreak ere emango dituzte, baina, horiek ere, beren oinarri jarraituz, masa arina edukiko dute. Gozoak izango dira, baina fruta gehituko diete. Aurrerago, krepe eta gofre gaziak nahiz eramateko jatekoa eskainiko dute: irabiatuak, kafeak, entsaladak... “Udan, adibidez, hondartzara eramateko ideia ona izan daiteke. Hondartzarako bidean dago lokala, eta zumaiarrek eguna pasatzeko eta hondartzaz ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera eman nahi diegu”, gaineratu du bikoteak.

#### Balioen garrantzia

Egunero merkatura joan, eta eguneko frutak eta barazkiak erosten saiatuko dira:

“funtsezkoa iruditzen zaigu hori egitea”. Garrantzia hori irakatsi nahi diete zumaiarrei, eta horretarako ekintza desberdinak egingo dituzte; besteak beste, jateko osasuntsuaren inguruko dokumentalak eskainiko dituzte lokal barruko telebistetan, eta kafearen jatorria erakutsiko dute.


“Ezinezkoa zen gu txikiak ginean, baina gaur egungo hurrei gosari eta askari osasuntsuen garrantzia adierazi nahi diegu. Opilekin alderatuz gero, izozki irabiatua osasungarriagoa da, edo gozokiaren orde, laranja-atal bat txokolatez bustita. Horrelako gauzak inportanteak dira”, esan dute.

Balioekin jarraituz, kulturari ere bere lekua eman nahi diote; lokal bizia izatea nahi dute:

irakurketak, olerki-errezitaldiak, lehiaketak edota birziklapen aholkuak eman nahi dituzte: “Ezagutza sustatu nahi dugu, eta kultura bide polita da, baina gauzak poliki eta ondo egin nahi ditugu, eta lehenbizi izozki denda eta kafetegia sendotuko ditugu”, amaitu dute. ■



www.bikosycafe.com  
943-38 14 14  
bikosycafe@gmail.com



**ORRAZTEGI ZUMAI A**

943-86 20 83

# JUARISTI

*jatetxea*

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

**KABI** Patxeta Etxezarreta, 15  
943-11 74 27

**TABERNA**




*Kaithermik S.L.*



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



**kalarri**

Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17

# MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

*maximus* **PENCIL**  
estudio decoración



Julio Beobide, 2 • ZUMAIA  
699 49 52 56  
maximuspencil@gmail.com  
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



**MENDI - ONDO S.L.**  
**Elektrizitatea**

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

*"Muagi"*

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



**LIDEN**  
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz  
678 875 652 / 943 905 983  
lur@olidenreformas.com  
www.olidenreformas.com



**NOIA S.L.**  
**TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK**

**Elengabeko garabi zerbitzua** 636 86 78 12 (Zumaia)  
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C  
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91  
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com  
www.carroceriasnoia.com



**OSA  
BERNIZATUAK**

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 66 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
*altzariak*

Tel/Fax: 943-86 13 25  
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



**Rosi** *Garbiketak*

**Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

# Herriko festak ziran biharamonian



**TESTUA:** IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

*Sartu gara bete-betea udaran, eta lehenean segitu izan bagenu, santelmoak ia ahaztuta, sanjoanekin batera botako zuten festen segida hasteko katxaperoa; baina aurten ere ez dugu izango jai ofizialik; akordatuko ahal gara, gero, nolakoak ziren... Badaezpada ere, kalterik ez garai batean nolakoak ziren errepasatzea.*

Lehen ere festa eta jai ugari ospatzen ziren Zumaian, urte guztian zehar, baina batez ere bi ziren inportanteenak, herriko zaindari ofizialak zirelako: bata, orain bezala, San Pedro eguna, ekainaren 29an; bestea, berriz, Doloretako amaren eguna (gaur egun irailaren 15ean, baina lehen apirilean ospatzen zen).

Sanpedroak ospatzeko ekitaldiak asko eta askotarikoak izaten ziren: ezpata dantza solemnea, udal agintarien eta agintari erlijiosoen prozesioan; oso aspalditik botatzen ziren katxaperoak gurean, eta 1844an badaude erreferentziak nola suziriak eta su artifizialak jaurti zituzten festetan; garaiaren arabera, programa aldatu egiten da, baina antzeko osagaiekin: pilota partidak, aizkolariak, Lizarrako dultzaineroak, buruhandiak eta erraldoiak... Baina sanpedroetako ekitaldi

nagusia, XIX. mendean, zezenketak eta sokamuturra izaten ziren; horrela, 1842an, “acordaron que el mismo día de San Pedro y el siguiente se corran dos vacas en la plaza pública de esta villa”<sup>1</sup>, baina 1844an ere: “se corran dos vacas en la plaza pública cerrándola con barreras”<sup>2</sup>; sanpedroetan gutxienez bi zezenketa izaten ziren, eta batzuetan lau ere bai, eta behin zezen plaza jarrita, korrida gehiago ere egiten zituzten udan, batzuetan Udalaren ekimenez, beste batzuetan herritarrek bultzatuta; adibidez, 1865ean, Lino Ostolaza prest zegoen sanpedroetan hiru zezenketa antolatzeke, diruz lagunduz gero Udalak. Zezenketak hasieran Goiko plazan izaten ziren, egurrekin itxitura propio eraikita, baina

Arrangoletan betelana egin zutenean, han egiten hasi ziren (1913tik aurrera). Zezenketetarako, gehienetan kanpoko toreroak eta zezenak ekartzen zituzten, baina herritar batzuek ere eskaintzen zuten euren burua toreatzeko, baita Udalak onartu ere; adibidez, 1910ean: “De la carta del novillero Fortunato Gorostola, hijo de este pueblo, por la que ofrece sus servicios para las novilladas que se celebran los días del Santo Patrono; quedaron enterados y acordaron se tome buena nota de este ofrecimiento”<sup>3</sup>. Zezen haien haragia erosi egiten zuten harakinek: 1921ean, 5 kg bakoitzeko 13 pezeta ordaindu zuten. Behin zezen plaza muntatuta, bestelako ekitaldietarako ere erabiltzen zuten (adibidez, 1923an,



Zumaiarrak dantzan Erribera kalean, 1955 inguruan. JAVIER CARBALLOK UTZIA



Santiago egunean, “charlotada<sup>4</sup>” egiteko eskaera egin zioten Udalari); azkenik, zezenketa batzuk ongintzarako dirua biltzeko izaten ziren, esate baterako, Ospitalerako (San Juan egoitzarako). Gero, XX. mendearen hasieran eta 1930eko hamarkadatik aurrera, zezenketak baztertu eta pilota partidek protagonismo handiagoa hartu zuten sanpedroetan; gainera, beste ekitaldi batzuk ere antolatzen hasi ziren: kalejirak; erromeriak; txirrindulari, asto eta saltaka lasterketak; euskal dantzen lehiaketak; boxeo borrokaldiak...; jaiak zirela eta, izaten zen polemika eta sesioa, ordea; adibidez, 1918an, eztabaida handia izan zen bandak non jo behar zuen, Goiko plazan edo Behekoan, eta Udalak erabaki zuen Behekoan jotzea; baina 22 lagunek idatzia sartu zuten udaletxean, eskatzeko beti bezala Goikoan jotzeko, eta horiei erantzuteko, beste 122 lagunek babestu egin zuten Udalaren erabakia; orduan, Goiko plazako bizilagun batzuek baimena eskatu zuten festetan dultzaina jotzeko. Festetan apaingarri, 1905ean, arku voltaikoak jarri zituzten Goiko plazan eta udaletxearen fatxadan.

Doloretako amaren egunean ez zen izaten sanpedroetan adinako ospakizunik eta festarik, baina askotan aitatz

da paperetan herriko zaindaria zela (“patrona de la villa”) eta udalbatza meza nagusira joaten zela.

Santelmoak dira gure festarik kutunenak gaur egun, baina goraldia azken urteetakoa da, lehen ez zeukaten hainbesteko fama eta oso festa xumeak ziren, sanpedroekin alderatuta. Ez zituen Udalak antolatzen, baizik eta Marinelen Kofradiak, eta Udalak gastuen 2/3 edo % 75 ordaintzen zuen. Urtero antzeko programa izaten zen, aldaketa handirik gabe: musika bandaren edo orkestraren baten emanaldia eta dantzaldia, txistulariak, trikitia, prozesioa...

Baina bestelako jaiegunak ospatzeko tarteak ere hartzen zuten zumaiarrek. Horrela, San Joan egunaren bezperan, su festa izaten zen Sanjuaniturrin, uriartetarren ekimenez, eta ez da askorik aldatu ohitura hori. 1871n, San Ignazio eguna zela eta, Udalak agindu zuen “se haga alguna función en la ría, sin que el gasto exceda de una cantidad módica, invitando a los marineros a que cedan las

## **SANTELMOAK DIRA GURE FESTA KUTUNENAK, BAINA GORALDIA AZKEN URTEETAKOA DA**

lanchas para que se pasee la gente”<sup>5</sup>. Oikian sanbartolomeak ospatzen ziren abuztuaren 24an, eta musika banda eta udal ordezkariak hara joaten ziren, jaiak “solemnizatzera”; 1899an, gainera, Udalak erabaki zuen Zubiaundia paperezko 50 faroltxorekin argitzea San Bartolome gauean, eta bertsolariak ordaintzeko dirua eman zuen; 1931n, berriz, Udalak adierazi zuen bazkaria eta salda beste gasturik ez zuela egingo, gerrikoa estutu beharra zegoelako, eta galdetu zien oikiarrei ea txistulariekin eta trikitilariekin konforme ziren. Artadiko festa handiak sanmigelak ziren, eta udal ordezkariak hara ere joaten ziren; agirietan jartzen duenez, Udalak txistulariak eta trikitia ordaintzen zituen. Santiagoak aspalditik ospatzen ziren Santiagoko hondartzan, eta horren frogak da 1886an izandako istiluak, erromeriaren amaieran borrokaldia izan baitzen, eta Eusebio Gurrutxaga alkateak berak ere hondartzara joan behar izan zuen, mikelateek lagunduta, giroa baretzera; gero, Zuloagak terrenoa erosi eta bereganatu zuen (1910ean), eta handik aurrera ere ospatu zen eguna; gainera, Santiago egunean kanpotar asko egoten zirenez, beste ospakizun batzuk ere izaten ziren herrigunean: musika bandaren emanaldia, uretako jolasak, zekorketak,

korporazioa meza nagusira joatea...; 1899an, Espainiako patriaren eguna zela-eta, Odietako pasealekua (Beheko plaza) argiztatzea erabaki zuen Udalak, 50 edo 60 argi gorirekin.

Jaiak antolatzeko, Udalak jaietako batzordea zeukan, baina kanpoko laguntzaileak ere izaten zituen, tarteka: 1886an herritar batzuek idatzia sartu zuten udaletxean, laguntzeko prest zeudela antolatzeko eta batzorde bat eratzeko; 1923an, Irnio Club eta Athletic Club ondoan izan zituen, eta berrikuntzak izan ziren programan (lasterketak, futbol partidak...); 1936an, sanpedroetan laguntzeko bere burua eskaini “Euzko Gaztedi Kiroltzalea”-k...

Udaran kanpotar ugari etortzen ziren Zumaiara, egunpasa edo uda osoa pasatzera, eta udatiarrei begirako ospakizun edo entretenimendu bereziak antolatzen zituen Udalak, gehienetan erriroan, mareaje ona edo itsasgora aprobetxatuta: kukainak, uso jolasak, ahate jolasak, estropadak..., betiere antzeko hitzak erabilia: “para entretenimiento de los forasteros y solaz de la colonia veraniega”. Horiez gain, pilota partidak ere antolatzen zituzten, igandeetan. 1905ean, iraila

Zumaya'ko udaletxiak, beñtan bizi dan gizon prestu eta entzute aundikoa dan **ZULOAGA'TAR IÑAKI** jaunaren laguntzarekin ila onen 25'rako, **DEUN JAKOBA'REN** egunera-ko oso jai politikak eratu ditu.

## **A G E R K A I A**

### **G O I Z E A N**

**ZOÏTZIRETAN**-«**JAKOBA-ETXEAN**» deritzan Zuloaga'tar Iñaki jaunaren jauregian, efiko txistulariak joko dute goitzere-  
restia.

**AMAIKETAN**.— Jaupa nagusi aundia **DEUN JAKOBA'REN** txandontxuan, Udal etxearen ordezkioak eta Zuloaga jauna bere sendi guztiarekin beñtan diralarik.

Ondorenean, txistulariak aurretik dirala Deunaren irudiakin ibilaldia Zuloaga jaunaren jauregi biran.

Onen bukaeran dantzatuko da

## **A U R E S K U A**

### **A R A T Z A L D E A N**

Bostetatik eta ilunabafarte, Deun Jakoba'ren zelaian nai aña soñu izango da gasteak jolasteko.

Gabeko bederatziretan jolasak jarraituko dute Gufutxaga'tar Eusebi'ren zugaztian.

Zumaya'n 1931'ko Uztaila'n.

**BATZORDEAK.**

Deun Jakobaren (Santiago) egunerako euskarazko programa, 1931ko uztaillean. ZUMAIAKO UDAL ARTXIBOA

izanagatik, artean “nahikoa” kolonia bazegoela eta, Udalak erabaki zuen bandak jotzea Odietako pasealekuan. Gainera, batzuetan kanpotarrek eurek egiten zituzten proposamenak: 1918an, Forondako markesak proposatu zuen uztaillean, iola estropada zenean, beste ikuskizun batzuk ere jartzea, eta hiru sari emango zituela; agian erregea ere etorriko zela, eta komeniko zela balkoietan zintzilikarioak ere jartzea, apaingarri.

Programan jartzen zuenaz gain, ordeza, uda garaian eta zumaiarrak entretenitzeko bestelako eskaintza osagarri batzuk ere iristen ziren gure herrira: 1904an, Jose Gonzalezek baimena eskatu zuen tiobiboa jartzeko, eta Odietako pasealekuan ezarri zuen; 1907an (eta hurrengoetan), Goiko plazako portikoetan (gaur egun “Arkupe” dagoen horretan) zinematografoa jartzeko eskaerak izan zituzten; 1913an,



1952 inguruko santelmoetako argazkia. Batzuek oraindik ezagutu dute beren burua.

JAVIER CARBALLOK UTZIA

Victor Arisek eskaera egin zuen erruleta edo "billar romano" bat jartzeko kalean; 1931n, Antonio Villanuevak baimena eskatu zuen sanpedroetan "un aparato de columpios" jartzeko, eta Goiko

plazan ezarri zuen; 1935ean, Jose Arratibel villabonarrak gezi jaurtiketarako barraka jartzeko baimena eskatu zuen; 1934an Cirque Olympia etorri zen, uztailaren 24an, eta emanaldia izan zen Amaiaiko

plazan; 1935ean Circo Norte etorri zen...

Ikus daitekeenez, lehen ere bazen festetarako aukera; laster izango ahal dugu guk ere, berriz! ■■■

<sup>1</sup> Zumaiaiko Udal Artxiboa 71.04, 1842-06-04an.

<sup>2</sup> ZUA 71.06, 1842-06-23an.

<sup>3</sup> ZUA 2834 (338), 1910-11-03an.

<sup>4</sup> Charlotada: zezenketa-ikuskizun komikoa, zinemako "Charlot" pertsonaiatik eratorria.

<sup>5</sup> ZUA 73.01 (266), 1871-07-30ean

**SOLOZABAI**  
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak  
Psikomotritizitatea - Naturopatia

[www.sura.eus](http://www.sura.eus)

**Sura**  
ZAINTZA  
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

**Talaraia**  
taberna-jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

**Tapaia**  
taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**

**TTAKUN**

Izurtari, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (kodilloak)  
Saltxitak, oilaskoak...  
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko-Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etcheberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 • [www.ukendu.com](http://www.ukendu.com)

**UZKUDUN**  
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943-11 63 97

**Xanti**  
ALTZARAK

Amaiaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
[www.xantialtziariak.com](http://www.xantialtziariak.com)



# AGENDA

## ERAKUSKETAK

### EKAINAK 30 - UZTAILA 18

Pedro Luengo, *L'atelier bat 2021*.

### UZTAILAK 23 - ABUZTUAK 8

Txuri beltzeko argazki lehiaketa.

### ABUZTUAK 11-29

Anton Eguiguren 75 urte!

## UZTAILA

### 3 LARUNBATA

**Bertsolari gazteen saioa.**  
*Moilaberrin, 19:00etan.*

### 4 IGANDEA

**Artisau azoka.**  
*Eusebio Gurrutxaga plazan, 10:00etatik 14:00etara.*

### 10 LARUNBATA

**Kontzertua:** Chill Mafia.  
*Sagarbideko patioan, 20:00etan.*

### 11 IGANDEA

**Piragua proba:** Urola igoera eta jaitsiera.  
*10:30ean.*

### 17 LARUNBATA

**Arraun estropada:** Zumaiaiko Ikurrina. Gizonezkoena: *12:00etan.*  
Emakumezkoena: *18:00etan.*

**Dantza:** *Topa*, Kukai Dantza.  
*Odietan, 10:00etan.*

### 23 OSTIRALA

**Kontzertua:** Unidad Alavesa.  
*Sagarbideko patioan, 20:00etan.*

### 24 LARUNBATA

**Kontzertua haurrentzat:** *Kontu kantari 2.*  
*Sagarbideko patioan, 19:00etan.*

### 30 OSTIRALA

**Musika Jaialdiaren aurkezpena:**  
*Legazpiko banda txikia. 13:00etan.*

### 31 LARUNBATA

**Kontzertua:** ZUMB eta Maria Zubimendi.  
*Santiago Etxean, 20:00etan.*

## ABUZTUA

### 1 IGANDEA

**Kontzertua:** San Pedro Abesbatza eta soka laukotea.  
*Parrokian, 20:00etan.*

### 2 ASTELEHENA

**Kontzertua:** Sapere Aude (formatu txikian) Ravel eta Strauss.  
*Zumaianen, 20:00etan.*

### 3 ASTEARTEA

**Kontzertua:** Donostiako Organo Hamabostaldia. Liudmila Matsyura.  
*Parrokian, 20:30ean.*

### 4 ASTEAZKENA

**Dantza umeentzat:** *Cajita de música*, Ana Capilla.  
*Odietan, 19:00etan.*

### 6 OSTIRALA

**Donostiako Musika Hamabostaldia:**  
Judith Jauregi eta Jesús Reina.  
*Parrokian, 20:30ean.*

### 7 LARUNBATA

**Emanaldia:** Aldapeko, Latin Jazz.  
*Odietan, 20:00etan.*

### 8 IGANDEA

**Kontzertua:** Ezpalak.  
*Sagarbiden, 20:00etan.*

### 10 ASTEARTEA

**Opera proiektzioa:** Las bodas de Figaro.  
*Aita Marin, 19:30ean.*

### 12 OSTEGUNA

**Dantza garaikidea:** Idi Begi, Larrua.  
*Odietan, 19:00etan.*



# Errua eta erruduntasuna



## Lardaska

**Egilea:** Patricia Highsmith  
**Argitaratzailea:** TXALAPARTA  
**Argitaratze urtea:** 2020  
**Orrialdeak:** 444  
**Generoa:** Eleberri beltza



**TESTUA:** ANTTON PEÑALBA

*Lardaska* Patricia Highsmithek idatzitako nobela beltza du. Patricia Highsmith, suspensearen dama, mundu osoarentzat eleberri beltz amerikarraren ordezkari goren da. Bere nobela asko oinarri hartuta, hainbat zuzendari ospetsuk (Alfred Hitchcock zine zuzendari ospetsuak, besteak beste) film ederrak eta entzutetsuak egin dituzte.

Nobela honetan, beste hainbatetan bezala, autoreak oso bereak dituen bi gai erabiliko ditu narrazio osoan zehar: kulpak eta justizia.

Hiru pertsonaia nagusi ditu narrazioak. Lehendabizikoa, Melchior Kimmel. Kimmel immigrante umila da. Liburu denda baten jabea da. Pornografia du diru iturri nagusi. Pornografia liburuak biltzen dituen jendearen artean, konfiantza osoko pertsona da. Baina, aldi berean, hiltzailea da. Emaztea akabatu du, baina libre dago eta ez du batere damurik. Bere burua oso seguru ikusten du.

Bigarren pertsonaia delakoa abokatu bat da, Walter Stackhouse. Bizitza ederra eta etorkizun oparoa du. Maite du bere emaztea, Klara. Bizimodu ezin hobea dute eta bikote eredugarria osatzen dute. Itxuraz hala da, behintzat; baina bere bizimodu zoragarria ez da hain zoragarria. Klarak izaera neurotikoa du eta oso jeloskorra da. Bere senarra bakartzen ahalegintzen da eta maiteago du beren txakurra senarra bera baino. Gainera, Walterrek emakume gazte bat ezagutuko du eta horrek aukera berriak eskainiko dizkio. Bere emazteaz libratu nahi du eta egunkarian atera den kasu batek kitzikaturik, emaztea desagerraraztearekin ameskeriatan hasiko da.

Hirugarren pertsonaia Lawrence Corby du. Pertsona

desatsegina, tematia, oldarkorra eta mugarik ez duena. Filadelfiako giza hilketen brigadakoa.

Walter liluratuta dago Kimmelekin eta, hura ikustera joango da haren liburu dendara. Zerk liluratzeko ote du horrenbeste? Kimmel errudun izateak edo berak ere gauza bera egin dezakeela pentsatzeak?

Egun batean Walterren emaztearen gorpua, Klararena, bide bazterrean hilda agertuko da eta Walterren jokabide eragabeak eta lardaskeriak adiskideen eta Corby detektibearen susmoak piztuko ditu.

Patricia Highsmithek maisuki korapilatuko ditu gertakariak eta umore krudelez eramango ditu pertsonaiak saihestu ezingo duten amaierara. Ohi duenez, hasieratik bertatik, harrapatuko du irakurlea eta, suspense giroari bikain eutsiz, lagunduko dio istorio ikaragarri honen bururaino. Oso nobela aproposa da hondartzan, lasai ederrean, eta buruari buelta gehiegi eman gabe irakurtzeko. ■

**AUTOREAK BI GAI  
ERABAILIKO DITU  
NARRAZIO OSOAN  
ZEHAR; KULPA  
ETA JUSTIZIA**

# Nahikoa da!



IHINTZ LINAZISORO

**E**kainean hiru astean bi eraso sexista izan ditugu Zumaian. Kalera irten gara. “Nahikoa da!” esan dugu. Arazoa oinarrian dagoela guztiok ados jarri gara. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ere idatzi bana atera dute eta erasoak gaitzetsi dute. Argi dago arazoa oinarrian dagoela, gure gizarte (gizon arte, inoiz baino egokiago datorkigu hitza, arazoa gizonengan baitago) heteropatriarkalean. Baina protesta egitetik haratago, zer egiten dugu edo zer egin dezakegu horrelako eraso gehiago ez jasateko? Badirudi begiratu batean duela 20, 25, 30 urte baino jendarte parekideago batean bizi garela, baina horrelako erasoen berri jakiten dugunean, ohartzen gara dena itxura hutsa dela. Ni gaztea nintzenean uste nuen ni ama nintzenerako lortuko genuela gauzak zertxobait aldatzea, baina nire esperantza eta usteak haizeak eraman dituela dirudi.

Zer egiten ari garen hausnartu beharrean gaudela uste dut, bai indibidualki, bai kolektiboki. Nondik atera dezake pertsona batek beste pertsona bat bortxaz jazartzeko zilegitasuna? Nola bihur daitezke bakoitzaren desioak beste ezer baino garrantzitsuago? Gazteek ohikoa duten esaera horretatik “nik nahi dudana egingo dut” edo antzekoetatik? Ez gara ohartzen norberaren

“askatasunaren” izenean ezin dela bestearena zapaldu? Hitz egin dugu desio eta plazer konpartituari buruz gazteekin?

Ni haurra nintzenean etxean oso gutxi hitz egiten zuten sexualitateari buruz (gutxi batzuk zorteko izan ginen), gaia tabua zen, eta lagunartean hitz egiten genuen edo liburuak bilatzen genituen gaiari buruz gehiago sakontzeko. Gaur egungo gazteek nondik jasotzen dituzte ereduak? Gaur egun ustez “progreagoak” gara, baina etxean sexualitate, plazer, askatasun eta desioei buruz oso gutxi hitz egiten da. Sare sozialak, Internet eta bideo jokoak dira gaur egungo gazteen bidelagun. Eta oso txikitatik hasten dira, gainera, pornoa kontsumitzen. Duela gutxi egindako ikerketa baten arabera, 10 urterekin hasten dira, hain zuzen (guraso.eus webgunean “sexualitateak 3.0 eredu pornografikoari aurre egiteko estrategiak” testu oso interesgarria dago nahi duenarentzat). Eta zer ikusten dute porno horretan, gehienbat

**"PROGREAGOAK"  
GARA, BAINA  
SEXUALITATE, PLAZER  
ETA DESIOEI BURUZ  
GUTXI HITZ EGITEN DA**

harreman heteroak eta sarketara bideratutakoak izatetik aparte? Ba, zenbaitetan bortxaz lortutako harremanak. Hasierako ezezkoez ez dela ezezkoez aditzera ematen dutenak eta abar.

Eta sare sozialez aparte, egunerokotasunean darabilgun telebista, liburu, iruditegi... nolakoa ikusten dugun ere hausnartu beharko genuke. Zer nolako harremanak islatzen dituzten... Gazteen artean ere bikote harremanetan WhatsApp inoizko kontrolik handiena du eta harreman horretan sartuta dagoena ez da ohartzen harreman toxiko batean dagoenik. Inguruko laguntza behar du. Badugu ordua, beraz, ingurukook begiak irekitzeko. Bai eta mutil eta gizon taldeak ere antolatzeko eta borroka hau zeuena egiteko ere. Hezkidetza denon ardura baita, eta ez emakume taldeena soilik. Zuei gizonetzkoegi dagokizue gaztetatik taldean ikusten dituzuen hitz, keinu, WhatsApp mezu, bideo... horiei guztiei “nahikoa da!” esatea eta ez birbidaltzea. Hasieratik horrelakoak mozteko dagokizue. Eta guri gurasooi, irakasleoi, auzokooi... gazteekin sexualitateari buruz lasai hitz egitea. Ea guztion artean lortzen dugun erasotzaile bihur daitekeena erasotzaile bihurtu aurretik geldiaraztea. ■



# Metxeroa



JUAN LUIS ROMATET

**G**auza batengatik edo besteagatik, denborarekin obsesionatua nago azkenaldi honetan. Denboragatik edo, hobeto esanda, denbora badoalako aurrera; mantso batzuetan, azkarrago besteetan, baina aurrera, etengabea, atzera martxarik gabe. Obsesioa zergatik? Akaso bederatzi urte eta erdiz nirekin izan dudau lau zenbakiak hemendik urte erdi eskasera utziko nauelako, eta haren ordezt bost itsusi batek bere lekua hartuko duelako? Izan daiteke.

Ustez gustukoak izango ditudan diskoen berri eman ohi dit lagun batek WhatsApppeko mezuen bidez. Horietako batean Mudhoney talde estatubatuarrek ateratu duen disko baten inguruko Interneteko lotuta bidali zidan. Disko horrek 30 urte bete ditu aurten, eta urteurreneko edizio berri bat ateratu dute, koloretako biniloan, eta auskalo zenbat kanta gehiagorekin. Badaki taldea asko gustatzen zaidala eta taldearen ia disko guztiak ditudala. Berehala erantzun nion banuela disko originala, egoera oso onean dudala –hau idazten dudau bitartean jarrita daukat tokadiskoan eta primeran entzuten da– eta pasatu, ez nuela edizio berri hori erosiko, Ikeatik erositako baldak ia gainezka ditudalako, eta besterik ez zaidalako ia sartzen. Hortxe geratu zen kontua... bere aldetik. Nire kasuan, burua denboraren zurrumbiloan sartu zitzaidan.

Esan bezala, 30 urte bete ditu diskoak. Donostiako Beltza Records denda erositu nuen nik orain 29 urte –zergatik akordatu naiz gauza hauetaz eta ez kontu garrantzitsuagoez?–. Mudhoney taldeak Txitxarro diskotekan jo zuen 1992ko maiatzeko zapatu batean, eta han izan nintzen. Aste berean U2 taldeak Donostian jo zuen, eta ez nintzen joan dirurik ez nuelako sarrera erosteko. Mudhoneyren kontzertua, baina, ez nuen galdu nahi izan. Hurrengo larunbatean trena hartu eta Donostiara joan nintzen disko berrien bila. Diru askorik ez eta ondo aukeratu behar nuen; taldearen bi disko erosi nituen, baita disko dendako jabearen kritikak entzun ere. “A zer disko txarrak eraman behar dituzun!”. Diplomatiakoa bazen saltzailea... Ia hiru hamarkadaren ondoren oraindik nirekin ditut bi disko horiek, plastikozko zorrotan gordeta, ehunka disko inguratuta.

Eta, testu hau pentsatzen ari nintzela, iaz zendu zen Rafael Berrio abeslari eta musikari donostiarraren *Inanimados* kanta etorri zitzaidan burura. Urteetan zehar gordetzen, biltzen ditugun liburuek, lumek, entziklopediek, erlojuek... bizigabeko objektu horiek guztiek guk mundu hau utzi ondoren hor jarraituko dutela dio Berriok abesti horretan: “Edo sutara bota gauza guztiak / edo bestela... bizirik iraungo dizute”. Zorionez, edo zoritxarrez, metxerorik ez dut etxean... ■■■

**DIRU ASKORIK EZ ETA  
ONDO AUKERATU  
BEHAR NUEN;  
TALDEAREN BI DISKO  
EROSI NITUEN**



# BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak      etxeko altzariak

eraberritzekotan?



## Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)

Casa  
**BASUSTA**  
LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak  
Aileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

***Etkez etxeko zerbitzua!***

Santiago auzoa, 18  
943-86 26 11

[www.floristeriabasusta.com](http://www.floristeriabasusta.com)

# Zatoz guztion sarera!

ZOZ zuntz optikoko herri sarea  
Zumaiako herrigune osora iritsi da.  
Jarri harremanetan operadoreekin  
eta eskatu informazioa.

 [labur.eus/ZOZ](http://labur.eus/ZOZ)

 [zoz@guifi.net](mailto:zoz@guifi.net)

 656 511 916

*fundació*  
**guifi·net**

 ZUNTZ  
OPTIKOA  
ZUMAIA

Zumaiako  
Udala



 **ZUMAIA**  
BIZITZEKO  
DA

# BRADERIE

## Dendak kalean

**ZUMAIA**  
UZTAILAK 24

Egun osoan zehar musika,  
denda postuak, eta giro aparta!

**300€**

zozketatuko dira erosketa baleetan

 **GERTU**

Zumaiako  
Udala



 **ZUMAIA**  
BIZITZEKO  
DA